

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Ustelkeria, Paradisu Fiskalak eta GRI Indikatzaileak

### Egilea

Kepa Aranguren Bergara

### Gradua

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

### Laburpena

Nire GrALa, izenburuak dioen bezala, Ustelkeriari, Paradisu Fiskalei eta GRI Indikatzaileei buruzkoa da. Lehenik, marko teorikoan gaur egungo krisiaren arrazoiak batzuen artean, Ujustelkeria eta paradisu fiskalen presentziaren eragina arrazoitzen dut. Bakoitza sakonki azaltzen dut, gai hoiengatik aurka borrokan dauden erakundeak zerrendatzen ditut eta bakoitzaren ekarpenari buruz hitz egiten dut. Azkenik, GRI Indikatzaileak azaltzen ditut eta 207an murgiltzen naiz, fiskalitateari buruzkoa. Ondoren, marko praktikokoan, IBEX 35eko 8 enpresa aukeratzen ditut eta bakoitzak 2020an publikatutako GRIak konparatzen ditut, beti fiskalitatean oinarrituta. Azkenik, enpresa bakoitzak idatzi duena eta errealitatean (OXFAMek dioenean oinarrituta) dena alderatzen saiatzen naiz eta sailkapen bat egiten dut enpresa hoberenetik txarrenera. Amaitzeko, konklusio batzuk ateratzen ditut lortutako informazio guztiarekin.

### 2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Nire GrALak 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko 16. helburari egiten dio ekarpena. Bertako gaien artean ustelkeriaren eta eroskeriaren kalteez hitz egiten da. Nabarmen murriztu behar dela dio eta horretarako erakunde eraginkor eta gardenak sortzea bultzatzen du. Nire lanaren zati handi bat gai horretara dago bideratuta, ustelkeria modu sakon batean azaltzen dut eta ekonomian gain, gizartean ekartzen dituen kalteak azaltzen ditut. Horretarako paradisu fiskalen presentziaren eraginak aipatu ditut, ustelkeria egotearen arrazoi nagusietako bat dela argudiatuz.